







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %5,9 egin zuen gora maiatzean, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,8 igo zen, etxekoan %9,1 eta zerbitzu alorrean %11,3.

Maiatza bitartean izandako kontsumo metatuak %2,8 egin zuen gora; industrian %0,8 jaitsi zen, zementu eta karea sektoreetan, aldiz, %16,4 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketa (%32,1), siderurgia eta galdagintza (%1) sektoreek ere gora egin dute. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%12,4), papera eta kartoia (%7,2) eta kautxuaren eratorriak (%0,9) izan dira.

Gas naturala

Maiatzean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %0,8 egin zuen gora, 2014ko maiatzean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %16,6 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %5,3 igo zen.







Maiatza bitartean izandako kontsumo metatuak %12,2 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (%8,5 CCTT-n eta %12,8 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Apirilean, garraioan erregaien kontsumoa %2,5 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %1,8 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %3 egin zuen gora. Apirilera arteko kontsumo metatua %1 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %2,8 egin zuen behera eta A gasolioarenak, ordea, %1,4 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Maiatzean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 92,3 milioi kupel izan zen (2014ko maiatzean izandakoaren aldean, %1,6 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1,2 egin zuen behera kontsumoak, 13 Mbpdp kantitatera iritsiz; Txinan %3,2 egin zuen gora, eta 11,1 Mbpdp kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %3,8 igo zen, eta 19,2 Mbpdp kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabetean, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,1 igo da, oro har, Txinan %3,7 eta AEBetan %0,7; Europar Batasunean, berriz, %0,5 jaitsi da.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %2,3 egin zuen gora maiatzean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Maiatza bitartean izandako kontsumoak %6,5 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoak ere gora egin zuen maiatzean, %2,3, 2014ko maiatzean izandakoaren aldean. Maiatza bitartean izandako kontsumoak %2,6 egin zuen gora. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4 egin zuen gora martxoan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %0,1 jaitsi zen, eta gasolioena, ordea, %4,8 igo zen. Urte mugikorren kontsumoak %1,8 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,7 jaitsi zen gasolinena eta %2,4 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %1,4 egin zuen behera martxoan; urte mugikorren kontsumoak %3,2 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 45,1 €/MWh izan zen maiatzean; duela urtebetekoaren aldean, %6,4 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 21,1 €/MWh izan zen apirilean, eta %12 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Maiatzean, EGIX-en prezioa 20,5 €/MWh izan zen (2014ko maiatzean izandakoarekin alderatuta, %6,3 igo zen). Spot merkatuetan, maiatzean, Henry Hub-en prezioa 8,7 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %23,7 jaitsi zen. Japonian, martxoan, 24,9 €/MWh izan zen (2014ko martxoan izandakoaren aldean, %44,8 egin zuen behera).

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 64,6 \$ (57,7 €) izan zen maiatzean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %28,5 egin zuen behera (%21,9 eurotan).

Erregaiaren prezioa

EAEn, apirilean, gasolioaren prezioa 1,16 €/l izan zen (urtebeteen %11 jaitsi da), eta gasolinarena 1,26 €/l (urtebeteen %9,2 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,5 €/t izan zen maiatzean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %46,9 egin du gora.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.